



Pil-pilean

TOKILOA

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko otsaila · 395 alea



ZU ZEINENA ZARA?

FAMILIA GOITIZENAK HERRIAN



PIL-PILEAN 395

2023ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:
Egoitz Unamuno

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Elkarrizketa Anje Eskarza kirol orientatzailea | IRITZIA |
| 6 | Begira Ezoziko Ama Abesbatzaren lehen argazkia | 3 Neuretik Juan Fernandez
<i>Isiltasunetik eraikiz</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Sonia Laskurain <i>Presak</i> |
| 14 | Argazki bidez Aratuste-zapatua | 16 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Familia-goitizenak Plazentzian | 17 Hausnarketa Hauteskunde zerrendak |
| 24 | Kirola Leire Elizburu Mendicute pilota epailea. | 17 Puntua Nerea Isasti <i>Soraluzeren etorkizuna</i> |
| 26 | Kultura Berriak, koplak eta ahotsak. | |
| 28 | Sakonean Quico Pugès Suarez. | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Isiltasunetik eraikiz



JUAN FERNANDEZ CONDE

Duela egun batzuk, irratsaio batean, nerabeen eta edadetuen erlazioen inguruan aritu ziren. Bi etapa horien konexioaz, non isiltasuna barneratu eta bizitzen den balore preziatu bat izango balitz bezala. Batzuk bizitakoaren pentsamenduen aurkako borrokan, besteak etorriko diren gatazkak modu egokian gestionatzen saiatzen. Isiltasunetik eraiki, isiltasunean bizitzeko. Jenerazio batekin harremana duen filosofia, norbera, eta, askotan, bere ingurukoak zaintzeko erabiltzen den estrategia adaptatiboa.

Ba al dakigu hitzak erabili gabe, beste modu baten komunikatzen? Zertarako gorputza? Bota dezagun adibide bat; bertsolari batek hitzak dantzan jartzen ditu. Dantzari batek hitzak mugimenduaren bidez adierazten ditu. Bi diziplina hitzekin jolasean. Zein da modurik egokiena pertsona gazte edo nagusi batekin komunikatzeko? Jakina, hitzak soilik ez dira.

Gure gizarteak ez du isiltasuna onartzen. Isiltasuna, gehienetan, deserosoa da eta normala ez den egoerekin lotzen dugu. Ez dakigu isiltasunean bizitzen. Ez dakigu isiltasunean elikatzen, ezta isiltasunean lorik egiten. Zarataren zale amorratuak gara. Zaratan bizi eta zaratan hezten gara. Zarata lasaitzeko, zarata seguru sentitzeko. Zarata desagertuko balitz, zarataren umezurtz sentituko ginen eta horregatik, gehienetan, ezin dugu isiltasunean bizi den pertsonarekiko enpatia sentitu. Baina, begiradak zertarako? Laztanak zertarako? Pertsona baten ahotsa ez entzuteak urduri jartzen gaitu eta indarrez behartzen dugu berba egitera, bestearekiko isiltasunaren beldurrez eta horrek isiltasuna eskatzen dizun pertsona horrengandik urruntzen zaitu.

Esaterako, zuhaitzek basoekin duten konexioa, pertsona gazte eta edadetuen arteko metafora izan daiteke. Biak, momentu intimoetan isiltasun aktibo baten bizi dira, errespetuz, bakoitza bere bizitzaren etapa ulertzen saiatzen eta bizitzen ulertzen. Argi dago badagoela komunikatzeko beste modu bat. Alegia, isiltasuna komunikatzeko beste modu bat izan daiteke. Hitzik gabe gelditzen garenean, emozioarekin gertutasuna sentitzen dugu. Kasualitatea? Hitzzen bidez komunikatu, zaratan disfrutat, baina isiltasunean emozionatu gaitzen, bestea ulertzeko, mundua bizitzeko, bizitza sentitzeko.

**ISILTASUNA,
GEHIENETAN,
DESEROSOA DA ETA
NORMALAK EZ DIREN
EGOEREKIN LOTZEN
DUGU**

“Jarduera fisikoak onura positiboak besterik ez ditu”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: ATHLON KOOPERATIBA

Anje Eskarza (Oñati, 1997) Soraluzeko kirol orientatzailea da, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Soraluzeko Udalak abiarazi duten Goazen, Soraluze! ekimenaren baitan. Eskarza martitzenero izango da Tolarekua aretoan (09:00etatik-13:00etara eta 14:00etatik 16:00etara) eta bi astean behin anbulatorioan (11:00-13:00). Kirol orientazio zerbitzua pertsona inaktiboek zuzendutakoa da, baina aktibo izanda, kirol jarduera hobetu nahi duena ere bertara daiteke.

Kirol orientazio bulegoen beharra zeren sintoma da?

Datuei begiratuta, Euskal Herrian zein Espainian, lehen heriotza-kausa gaixotasun kardiobaskularrak dira (%25), istripuen aurretik (%10-15). Arazo kardiobaskularrak, gehienetan, lotuta daude sedentariismoarekin, gainpisuarekin, jarduera fisiko baxuarekin... Erakundeetatik bultzatu nahi dena da pertsona horiek aktiboago bilakatzea, heriotza horiek jaitsi eta euren bizikaltatea hobetzeko. Gaur egun, argi ikusten da osasunean inbertitu beharra dagoela. Azken urteotan ohitura sedentarioak eta gainpisua dutenen portzentajea handitzen doa, jarduera fisiko ezaren ondorioz.

Zenbateraino eragin dezake jarduera fisikoak norbere bizimoduan?

Egunerokotasunerako ondorio positiboak besterik ez dituela erakusten duen oinarri zientifikoa dago, bai adin txikikoen kasuan zein nagusien kasuan.

Adibidez?

Esaterako, adinarekin, zenbait ahalmen galtzen doaz eta normalean, indar ariketak lantzen ez direnez, urteekin, geroago eta gehiago kostatzen da eguneroko zereginak egitea, errekaduak garraiatzea... Garrantzia eman behar zaio indar ariketak egiteari, aktibo egoteari, egunerokotasuneko oinarrizko zereginak arazo barik burutzeko. Aktibotasun maila altuarekin eta indarra landuz, zahartzaroaren eraginak beranduago iritsiko zaizkigu, 50-60 urterekin

barik, 80-90 urterekin. Eragin hori atzeratzen saiatu behar gara, gure bizi-kaltatea hobea izateko azken egunera arte.

Baina ohiturak aldatzea asko kostatzen da.

Askok diote denborarik ez dutela. Denbora bakoitzak nahi duen moduan kudeatzen du. Baina jarduera fisikoa egiteak ez du esan nahi egunero 1,5 ordu edo 2 ordu horretan ibili behar garenik. Aldaketa txikiak egiten hasi behar gara, gero, benetako aldaketak emateko eta aldatzea posible dela ikusteko. Ez da 100 metroko lasterketa bat, karrera luzea, maratoni bat da.

Poliki-poliki hasi beharra dago gorputza ohitzen joateko. Egunero zerbait egitea beti da ezer ez egitea baino hobea. 5-10 minutu eginda ere, aldaketa batzuk egoten dira, txikiak izan arren.

Zelan funtzionatuko du kirol orientazio bulegoak?

Lehenengo, elkarrizketa egingo zaio datorrenari. Duen arazoaren edo helburuaren arabera, gomendio batzuk emango dizkiogu eta bizpahiru astera berriro hitzordua emango diogu ikusteko gomendioak baliagarriak izan diren, erabiltzailea gustura egon den, aldaketak eman diren, proposatutakoa jasangarria den... Ikusiz gero aldaketak egitea komeni dela, aldaketak egingo dira. Biok adostu behar dugu egin beharrekoa, bion artean, erabiltzailearen bizitza estiloan eragiteko.

Zein joan daiteke?

Edozein, gazteak, 80 urtekoak... Ez dugu adin mugarik. Plan individualizatuak eta pertsonalizatuak egingo ditugu, hori argi. Helburua da ahalik eta pertsona gehienengana ailegatzea. Kirola edo jarduera fisikoa mundu guztiak egin dezake eta guztiendako da onuragarria. Adibidez, urte askoan, kirola oso maskulinizatuta egon da, baina, azken 20-30 urteotan, gero eta emakume gehiago ari dira kirola praktikatzeko. Ikusten ari da kirolak ez daukala sexualitatekerik. Jendeari esango nioke lehen pauso hori ematen ahalegintzeko, gero, seguru bion artean adostasunen batera ailegatu gaituz gaituz.



Abesbatzaren lehen argazkia

ARGAZKIA ETA TESTUA: ABEL OLAIZOLA

Ezoziko Ama Abesbatzak 30 urte bete ditu. 1992koa da lehen partaideen argazkia. Honako hauek azaltzen dira, behean, ezkerretik eskumara honako: ezezaguna, Mari Ines Plazaola, Veronica Galarraga, Irantzu Sanz, Ane Aristi, Nagore Sanz (zuzendaria), Teresa Borinaga, Jone Aspe, Ainhoa Unamuno, Olatz Oregi eta Piedi Gonzalez. Bigarren lerroan: Arantza Gabilondo, Begoña Txurruka, Arrate Basauri, Maria Jesus Ezenarro, Inmakulada Elgeta, Maite Orbea, Arantza Barrutia, Rosarito Zabaleta, Ezozi Basauri, Maria Luisa Artolazabal. Emakumeen hirugarren lerroan: Maria Luisa Telleria, Gloribel Oregi, Josune Balerdi, Ane Orbea, Nagore Alberdi, Mari Tere Aristi eta Marifran Aizpuru. Gizonak, ezkerretik: Juantxo Alberdi, Pedro Mari Elizburu, Juanjo Cruz, Paco Lopez, Alberto Garitano, Alberto Galarraga, Gonzalo Gallastegi, Mikel Cruz, Aitor Rodriguez, Carlos Tornos, Juan Manuel Arruabarrena eta Luis Elortza. Goiko lerroan, Agustin Gabilondo, Abel Olaizola, Juan Mari Altuna, Manolo Galarraga, Manolo Etxabe, Pedro Etxaniz, Fernan Oregi, Santi Alberdi, Julio Alberdi, Sabin Iñurrieta, Benan Iñurrieta eta Xabier Iñurrieta.





Debabarrena berritzen abian

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Soraluzeko eta Elgoibarko Udalen, Debegesaren eta Debabarreneko Gizarteratze eta Laneratze Sarearen babesarekin aurkeztu zuten Debabarrena Berritzen.

Otsailaren hasieran abiatu zuten Debabarrena Berritzen proiektua. Egoera zaugarrian eta langabezian dauden 30 urtez azpiko gazteak laneratzeko laguntzea du helburu. Horretarako, gazte horiei formazioa, orientazioa eta kontratazioa emango diete, herrian zaharberritzeko beharra duten zenbait esparrutan berritze obrak egiteaz batera.

Estreinaldia Soraluzen

Egitasmo berri horretako partaideak hilabete hasieran hasi ziren formazioa jasotzen eta baita praktikak egiten ere. Guztia Soraluzen. Formazioa Elkartegian jasotzen ari dira,

kasu honetan, pladurrekin lotutako formazioa.

Ondoren, hori praktikan jartzen ari dira, Soraluzeko Udalak bereganatuta duen Olaldeko Leteneko garajeetan. Praktikek iraun bitartean, 1.420 metro karratuko espazio hura zaharberrituko dute, hasiera baten Lantegi Eskola izan dadin egokitzeko. Debegesak kudeatuko du lantegi eskola hori. 2024ko abendura artekoa da adostutako hitzarmena.

Azkenik, ikasitakoa eta praktikatutakoa modu errealean erabili ahal izango dute Ezozibidea Berritzen egitasmoaren baitan egingo diren zaharberritze obretan.

Han, aldizkako kontratazioa egingo diete gazteei, obra horietan lan egin dezaten; bestela esanda, laneratu egingo dituzte.

Bestalde, Soraluzen, Ezozibideko etxebizitzaren obretan parte hartuko duten moduan, aurrerago Elgoibarko Sigma auzoan eta Eibarko Barrenan egingo diren jardueretan ere parte hartuko dute Debabarrena Berritzen proiektuan ariko direnek.

Elkarlana eta berritasuna

Egiasmoa otsailaren hasieratik abiarazi bazuten ere, erakundeetako ordezkariak otsailaren 14an egin zuten aurkezpena, Soraluzen bertan, Leteneko garajeetan.

Ordezkaritza politiko benetean zabala elkartu zen eta Debabarrena Berritzen egitasmoaren garrantzia nabarmendu zuten.

Batetik, proiektuaren izaera berritzailea eta erakunde askoren arteko elkarlanaren emaitza dela nabarmendu zituen Francisco Pedraza Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze zuzendariak. Ildo

Proiektuaren xehetasunak

Debabarrena Berritzen proiektuaren bitartez, langabezian dauden 12 gazteri lanerako formazioa, orientazioa eta kontratazioa emango zaie. Talde hori osatuta dago, hiru dira soraluzetarrak, beste hiru elgoibartarrak eta sei eibartarrak. Debabarreneko Gizarteratze eta Laneratze Saretik (Gizarte Ongizate Sailak, Lanbideko... osatutako sarea) bideratu dituzte programara eta 12 hilabetez arituko dira bertan. Soraluzen abiatu da egitasmoa eta eskualdeko bestelako herrietan jarraipena izango du. Debabarrena Berritzen-en parte hartzen ari den taldea otsailean hasi zen formazioa jasotzen, Elkartegian, eta, ikasitakoa Olaldeko garajeetan jarriko du praktikan. Azkenik, Ezozibidea Berritzen proiektuko obretan lan egingo dute.

"ERAKUNDE ASKOREN ELKARLANAREN EMAITZA BERRITZAILEA DA"

FRANCISCO PEDRAZA, JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTERATZE ZUZENDARIA

"INKLUSIOAK ETA HIRI-BERRONERATZEAK BAT EGITEN DUTE"

IGNACIO DE LA PUERTA, JAURLARITZAKO LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDA ZUZENDARIA



Debarbarrena Berritzen ekimenaren aurkezpenean ordezkari politiko.

beretik jo zuen, Debegesako zuzendari nagusi Juan Angel Balbask.

Zaharberritzea eta inklusioa

Bestetik, proiektuan, hiri-berroneratzeak eta inklusio soziolaboralak bat egiten dutela azpimarratu zuen Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda zuzendari Ignacio de la Puertak.

Zentzu horretan, Jabier Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko, Turismo eta Landa Inguruneko diputatuak azaldu zuen halako proiektuen helburua dela lurralde modura aurrera egitea inor atzean laga barik.

Ane Beitia Elgoibarko alkateak, berriz, proiektuaren osotasuna azpimarratu zuen, esanez haren xedea ez dela bakarrik gazteak laneratzea eta gizarteratzea, laneratzeko prestakuntza ematea ere badela.

Azkenik, besteak beste, Soraluzeako alkate Iker Aldazabalek azpimarratu zuen Debarbarrena Berritzen

proiektua "pozgarria" dela Soraluzeako zein bailarako eta proiektuaren izaera "ambiziosoa" ere nabarmendu zuen.

"Itxurakeriak" desfiguraturata

Proiektuarekiko bestelako ikuspuntua du, berriz, Soraluzen oposizioko alderdi nagusi den EH Bildu koalizioak. Unai Larreategi bozeramaleak azpimarratu duenez, "Soraluzen dauden langabetuei aukera berri bat eskaintzera

"ANBIZIOSOA DA ETA POZGARRIA SORALUZERAKO ZEIN BAILARARAKO"

IKER ALDAZABAL ALKATEA

"LANGABEENGAN NEURRIZ KANPOKO ESPEKTATIBAK SORTZEAK EZ DAKAR EZER ONIK"

UNAI LARREATEGI, OPOSIZIOIKO BURUA

dator proiektua"; alde horretatik "begi onez" ikusten dute egitasmoa eta horregatik izan ziren aurkezpen ekitaldian. Baina gaineratu du ez zitzaieela gustatu bertan ikusitakoa: "Udaletik, Debegesatik, Diputaziotik, Jaurlaritzatik eta bestelakoetatik 40 lagunetik gora elkartu ginen. 40 laguneko komitiba 12 langaberentzat formazio bat aurkezten. Herritarrengan eta batez ere langabe daudenengan neurritz kanpoko espektatibak sortzeak ez dakar ezer onik".

Bestalde, Debarbarrena Berritzenen zenbait datu ere nabarmendu ditu Larreategik: "Proiektu hau 2024ko abenduan bukatzen da. Garai honetan 12 langaberi emango zaio formazioa (horietatik 3 dira soraluzeakoak). Horixe izango da beraz proiektuak Soraluzeako langabezia gehienez izango duen inpaktua. Gogoratzekoa da Soraluzen 241 langabe daudela azken datuen arabera. Gure herriaren egoera ez da hobetuko itxurakeriarekin eta gain dimentsionatutako publizitatearekin".



Ukrainarren Soraluzeko gurasoak eta hemen errefuxiatuta dauden Anna Kobalenco eta Darina Fikelmon ukrainarrak.

Urtea pasa eta oraindik gerran

Errusiak Ukrainaren kontrako inbasioa abiatu zuenetik urtebete bete den honetan, gerraren kontra protesta egin eta Ukrainan gerra sufritzen ari diren senideak eta lagunak gogora ekarri dituzte

Ukrainaren kontrako inbasioaren urteurrenaren harira, plazan elkartu dira ukrainarren Soraluzeko gurasoak eta Soraluzen errefuxiatuta segitzen duten Darina Fikelmon eta Anna Kobalenco ukrainarrak.

Guztiek ere ondo gogoan dute iazko otsailaren 24a. Fikelmonen negar malkoek eta isiltasunak dena esaten dute. "Hasieran, ez genuen pentsatzen gerrak horrenbeste iraungo zuenik; eurek ere ez zuten hori uste", dio Agustín Morok.

Soraluzen sei hilabetez errefuxiatuta izan ziren bederatzik ukrainar, haietatik zazpi irailean bueltatu ziren sorterrira. Gaur egun, urduri eta beldurrez bizi dira han. Mertxe Galarragaren alaba Inna

Likarchuk-ek idatzitako azken mezuetak batean kontatzen duenez, joan den astean eskolak minaz beteta zeuden, baina orain garbi daude. Argindar falta da, berriz, arazo nagusietako bat orain; Ivankiven egunean ordubetez ematen diete, beste zenbait herritan hori ere ez.

Urduri eta beldurrez

Hala ere, normaltasunari eusten ahalegintzen dira: "Elena (Kobalenco) ia egunero lanera doa Kievera. Garraioan beldurrez joaten dira batzuetan; alarmak jotzen duenean, berriz, enpresako sotoan gordetzen dira, baina etxean daudela alarmak jotzen duenean... urduri eta beldurrez daude, batik

bat, entzun dutelako egunotan, inbasioaren urteurrena dela-eta, egoera gogortu egingo dela. Sofia ere, normalean, eskolara doa, nagusiekin txandaka, eskola apurtuta dagoelako, eta, hotzez, argindarrak ez dutelako", kontatu du Morok.

Etorkizunari buruz, berriz, ez dute barbarik egiten, ezin dute, oraingoz ez dutelako etorkizunik ikusten.

Hemengo gurasoek, berriz, saminez bizi dute haien egoera. "Munduan gauza asko pasatzen dira eta erraz ahazten gara, baina hor daude. Urtebete pasatu da eta eurei aurpegiak ipintzean, kosta egiten da. Oso gogorra da", dio Mertxe Galarragak. Plazan geratu dira, ukrainar-soraluzetarrak gogoan: Inna, Tania eta Sofia Likarchuk, Marina eta Eugeny Kalinski, Elena eta Sofia Kobalenco, Darina Fikelmon eta Anna Kobalenco.

SORALUZEN ERREFUXIATU ZIREN 9 UKRAINARRETATIK 7 SORTERRIRA BUELTATU ZIREN IRAILEAN

Domekan itxiko dute Bolintxo

Bolintxoren saltokia itxi ondoren, herrian okindegi bakarra geratuko da: Mendizabal Okindegia

Domeka honetan, Bolintxo okindegiak itxi egingo du Soraluzeko frankizia. Bertako langile Amaia Aldazabalek esandakoaren arabera, saltokiak izan duen irabazien jaitsierak eragin du ugazabek erabakitzea Soraluzeko saltokia ixtea.

Irabazien jaitsiera, berriz, hainbat arrazoiengatik gertatu dela kontatu du: "Lehengaien prezioak asko garestitu dira eta horren ondorioz, ogiaren kostua ere asko handitu da; horrekin batera, argindarra ere



Bezeroak Bolintxo okindegian, asteen.

asko garestitu da eta lokalaren alokairua ere handia da. Azkenik, Eroski zabaltzearen eragina ere igarri dugu, hori izan da denda ixteko azken ukitua".

19 urtez herrian

2004. urtean zabaldu zuten Bolintxo okindegia Soraluzen, Zubi Nagusian. Berez, Bergarakoa da okindegi-katea eta Soraluzen, frankizia modura funtzionatu du. Guztira, lau herritar izan ditu arduradun Soraluzeko saltokiak, azkena Amaia Aldazabal; bertan ibili diren langileak ere herritarrak izan dira. Azken arduradun Aldazabali dagokionez, hiru urte egin ditu bertan lanean eta dio pena handiz itxiko duela saltokia, "ez bakarrik nigatik, baita ere herria hiltzen dagoelako".

Aldarrikapena eta kultura, M8an

Besteak beste, elkarretaratzea izango da martxoaren 8an, eguaztena, 18:30ean, Plaza Berrian, M8 Plataformak deituta

Bi aste barru izango den Martxoaren 8ak, Emakumeen Nazioarte Egunak, aldarrikapena eta kultura ekimenak ekarriko ditu datozen asteotarako. Umeei, gazteei zein helduei zuzendutako ekitaldiak izango dira eta martxoaren 8an bertan hasiko dira.

Emakumeendako tailerra

Ekitaldien artean, *Argazkia eta ahalduntzea* tailerra izango da

martxoaren 16an eta 23an, 18:00etatik 20:00etara Tolarekuan. Idoia Telletxea Maritxalar argazkilaria, formatzaile eta bideratzailea izango da gidaria. Irudien bitartez norberaren identitatea, autoerretatua eta ahalduntzea lantzea du helburu eta adin guztietako emakumeei zuzenduta dago. Hori bai, parte hartzeko izena eman beharra dago martxoaren 10a baino lehen, udal bulegoetan.

Martxoak 8

- Urpekariak bertso-antzerkia, umeendako.
- Berdintasunerako bidea scape room-a. Institutukoendako.
- Elkarretaratzea. 18:30. Plaza Berrian.

Martxoak 9-23

- Argazki erakusketa. Ni naiz Idoia.

Martxoak 10

- AMAraun amatasunari buruzko ikuskizuna. 20:00etan Herri Antzokian.

Martxoak 10

- Argazkia eta ahalduntzea tailerra. Emakume guztiendako.

Zaporeaki laguntzeko erronka Debararena osora zabaldu dute

Orain dela bost urte Ermuko eta Eibarko sukaldari batzuek hasitako erronka eskualde osora zabalduko dute aurten eta, horrela, Debarareneko herri guztietan egongo da Zaporeak elkarrekin Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuen alde egiten duen lan solidarioan laguntzeko aukera. Gainera, erronka hasi aurreko egunetan, elikagaiak bilduko dituzte eta rifak erosteko aukera egongo da.

Zaporeak elkarrekin 1.600 otordu ematen ditu egunero Lesbos uharteko errefuxiatuen esparruan eta, horretarako, erakundeen aldetik jasotzen duen laguntzaz gain, herritarren ekarpenak berebizikoak dira. Zaporeak proiektua hainbat sukaldariren eskutik jarri zen martxan, eta eskualdean sukaldari solidarioak ditugula-eta, 2019an ekimen berezia abiatu zuten Ermuan eta Eibarren errefuxiatuei laguntzeko: “Baietz bakoitzak bere herrian 1.000 kilo janari bildu”. Esan eta egin, eta, gainera, rifak saldu zituzten eta paella erraldoia egin zen Ermuan. 4.000 euro inguru biltzea lortu zuten.

Herritarren erantzun ona ikusita, ekimena indarra hartzen joan da eta jasotako laguntza eta elikagai-kopurua ere igotzen joan da urtero. Iaz, 6.200 euro bildu zituzten; aurten, kopuru hori gainditzea da erronka. Horretarako, hiru aukera ematen dituzte ekimenaren sustatzaileek: rifak

erostea, elikagaiak ematea eta martxoaren 25ean Ermuan egingo den ekimenean parte hartzea.

Rifak salgai

Rifak salgai jarri dituzte dagoeneko, euro baten, eta irabazleek, eskualdeko jatetxe batean afora irabazteaz gain, Eibarko Artisten Elkartearen kideek emandako artelan bana eramango dute etxera. Afariak Ermuko Amatek, Sagarra eta Mendiolan; Eibarko Casino, Kontent eta Baratz; Elgoibarko Belaustegin; eta Itziarko Salegi jatetxeetan emango dira. Gainera, Eusko Label eta KM0 produktuez osatutako otarra ere zozketatuko da.

Janari-bilketa

Zaporeaki laguntzeko beste modu bat elikagaiak ematea da. Horrela, martxoaren 20tik 24ra, Debarareneko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute, lekaleak batik bat. “Erraz egosten diren elikagaiak batzen ditugu, jende askori

eman behar baitzaio jaten”, diote ekimenaren antolatzaileek.

Ermuan, Sorluzen eta Deban arroz luzea bilduko dute, Mallabian eta Mendaron hodi erako makarroia, Eibarren dilista pardina, Elgoibarren garbantzu pedrosillanoa eta Mutrikun, berritasun bezala, arrain-kontserbak.

Oraindik ez dute zehaztu herri bakoitzeko elikagaiak zein tokitan jasoko dituzten, martxoaren hasieran zehaztuko baitituzte bilketa-puntuak.

Tupper solidarioa

Erronka honekin hasi zirenetik gertatu ohi den bezala, tupper solidarioak banatzen emango diote amaiera ekimenari eta aurten Ermuan egingo da ekintza, martxoaren 25ean. “Ekimen hau garrantzitsua da, errefuxiatu esparruetan zer jaten duten ikusteko balio duelako. Ume askok galdetzen dute ia zer gertatzen ari den esparruetan”, azaltzen dute antolatzaileek. Izan ere, tupperrek errefuxiatu



Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka antolatu eta laguntza eskaini duen jendea. SILBIA HERNANDEZ

esparruetan banatzen direnen antzekoak dira. Gainera, errefuxiatuen egoera hobeto ezagutzeko, Lesbosen gertatzen ari den errealitatea erakutsiko dute Ermuko kaleetan jarriko dituzten bideo batzuen bitartez.

Bazkide bila

Debabarrenean egingo den ekintza hau garrantzitsua da Zaporeakentzat, baina edozein laguntza da gutxi, eta elkarteari laguntzeko bazkide berrien bila dabilta. Beraz, kanpaina abiatu dute asmo horrekin. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute, eta aportazio guztiak ongietorriak izango dira. Gainera, euro baten truke

bazkari duin bat eman dezaketela gogorarazi nahi diote jendeari.

Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880), edo, bestela, www.zaporeak.eus webgunearen bitartez.



**ESKUALDEKO HERRI
BAKOITZEAN ELIKAGAI
JAKIN BAT JASOKO
DUTE MARTXOAREN
20TIK 24RA**



**MARTXOAREN 25EAN
TUPPER SOLIDARIOAK
BANATUKO DIRA
ERMUAN. GAINERA,
AFARIAK ZOZKETATUKO
DIRA ERRIFEN
BITARTEZ**

Giro aparta

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA ZANGITU

Umorez eta festa gogoz, herritar mordoa mozorrotu zen kuadrillan zein bestela Aratuste-zapatuan. Azken urteotako joerari eutsita, eguerdi-arratsaldeko lehen orduetara arte, giro aparta izan zen kalean eta gauekoa ere gustukoa izan zen. Aspaldiko urteetan Aratusteetan irten barik izan ziren pare bat lagunendako deigarria izan zen Soraluzen halako giroa ikustea eta halaxe nabarmendu nahi izan zuten: "Zorionak gaurkoa antolatu duenari! Demaseko giroa dago!".

Martitzenean, berriz, mozorro lehiaketako sari banaketan, azken urteotan Aratusteetarako mozorroa prestatzeko askok hartzen duten lan handia eta herrian sortzen duten giroa nabarmendu eta goraiatu zuten udal ordezkariak. Ikusten da, bada, herritik eta herritarrek herritarrendako egindakoa maite dutela soraluzetarrek.





GUTUNAK

Presak

SONIA LASKURAIN

Orain dela gutxi Cañones berrizteari buruzko gutuna idatzi nuen eta gutxira, notizia ederrak jaso ditugu beroni buruz. Kasualitatea akaso, baina ze kasualitate ederra! Oraingoan, halako beste kasualitate bat suertatzen dudan saiatu nahi dut.

Bada denbora, Soraluzeri ekologiarekin lotutakoekin, loteria tokatu zaiola dirudiela, edo hori sinetsarazi nahi digutela.

Eolikoekin hasi ziren, energia berriztagarrien onurak salduz. Ekologiaren alde egin beharreko guztiaren aldekoa naiz, baina egiten ari garen hau da onena? Ze onura ekarriko dizkigute eolikoek? Gainera, hemendik 30 urtera beraiekin gertatzen denaz inork ez du ezer esaten; ez litzateke hobe Soraluzeko etxeen teilatu guztietan eguzki plakak jartzea?

Presekin ere tokatu zaigu loteria. Berauek erdi botatzeko miloi piloa eman dizkigute, itxura denez horrela arrainek gora eta behera egingo dute, ibaia txukunago egongo da, oxigenatuago... Seguruena horrela izango da, ez naiz inor adituei kontra egiteko. Baina esan beharra daukat, ni, egon zen azken azalpen bilerara hala izan behar dela konbentziturata irteteko asmoarekin joan nintzela, baina kontrako eraginarekin irten nintzela.

Batetik, galdetu ziren gauza askorentzako erantzunik ez zutela esan zuten, Udalari... zeritzola erantzutea eta bestelakoak esanez. Bestalde, azaldutakoei bueltaka ibili naiz buruan, eta, egia da nireak bezala sentitzen ditudala presak, herriaren parte balira bezala eta gainera erlaxatu egiten naute beraien ur soinuek, ondo dakit zer esaten dudan, Olabarrenako

Presa ondoan bizi bainaiz. Baina horrez aparte, adituek azaldutako burbuilei begira egon nintzen Malmeroko Presan eta zein izan zen sorpresa, berauen eragilea ez zela adituek esan bezala metanoa, bueno agian baita, baina nik zer bait arraroa ikusi nuen eta ondo begiratu ondoren, arrain txikiak zirela konturatu nintzen! Zelan dakidan? Mugitzen zirenean euren kolore distiratsuak ikusi nintuelako.

Orduan, arrainek badakite presetatik gora eta behera egiten orain dauden bezala. Beraz, ez litzateke hobe diru guzti hori presak garbitzen, mantentzen eta hori guztia egiteko norbait kontratatzen gatzatzea, antzina bezala? Ez naiz jubilatua, baina lan hori egiten ikusi dut: behar zenean presak itxi edo zabaltzen, beharra edo egoeraren arabera...

Soraluze, zer deritozue?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Hauteskunde zerrendak

Alderdiren batek proposatuko balizu, aurkeztuko zinateke hauteskunde zerrenda batean?



GONZALO ASENSIO DE MIGUEL

"Ez. Politikarako balio egin behar da. Nik politikan sinesten dut, baina ez politikariengan. Ni oso ondo nago nagoen moduan, herriko jende guztiarekin konpontzen naiz ondo eta politikan badakizu, batzuekin ondo baina beste batzuekin ez".



KOLDO HERIZ AIZPURI

"Duela urte batzuk aurkeztu nintzen udaletxerako zerrendetan baina momentu honetan nahikoa lan daukat etxea gobernatzen. Zinegotzi izateak dedikazio handia, denbora asko, inplikazioa eta gaien gainean egotea eskatzen du. Ardura handia da".



IDOIA CACHO MAIZTEGI

"Ez. Ez dut ikusten nire burua gai. Uste dut gobernuan egon behar duela herriko eliteak, ondoen prestatuta dauden pertsonak. Herriarekin konpromiso handia hartu behar da eta buru-belarri jardun. Asfaltoari pixka bat laga eta herria mugitu behar lukete".



MARIA TEJEDOR CANO

"Ez ez, guk daukagun adinarekin ez, hori gazteen kontua da. Nik esaten diot alkateari Soraluze abandonatuta dagoela eta herri honek laguntza behar duela. Nik baloratzen dudana da, lehenik, entzutea eta ondoren, egitea".

PUNTUA



NEREA ISASTI

Soraluzeren etorkizuna

Zergatik aukeratzten dugu bizitzeko herri bat edo bestea? Hiria ala herria, debate hori amortizatuta dago. Hortik harago, lanak, bikoteak, etxebizitzaren prezioak, norbere izaerak, herriarenak... baldintzatzen du aukera.

Herri handiago batetik Soraluze bizitzera joandako bikoteen bi kasu ezagutzen ditut. Bata, Ermutik, duela 30 bat urte. Bestea, Arrasatetik, duela 20 bat urte. Bietan etxebizitza izan zen arrazoi nagusia. Soraluze aukera merkeagoa zen. Urteak pasa eta ez dira damutu. Hango jendea eta giroa gorai patzen dituzte.

Beste batzuk, aldiz, herritik joan gara, hainbat arrazoiengatik. Soraluzek bizi duen egoera – biztanle kopurua beherantz – Eibarrek ere pairatzen du. Eibartar kritiko asko dago herriarekiko: degradatutako gunek, erortzen eraikinak, lapurretak, merkataritzaren murrizketa, trenbidea estaltzeko egingo duten zentzugabekeria...

Soraluzen, zer egin daiteke erakargarriagoa izan dadin bertakoek alde egin ez eta ingurukoek bizilekutzat har dezaten? Inguru naturala badu, herritarren mugimendua eta parte-hartzea bizirik dago, ongizate, hezkuntza eta kultura zerbitzuak ontzat har ditzakegu. Bilakaera enpresarial eta komertzial zabalagoa behar du? Beste etxebizitza politika bat? Gakoa bilatu eta buelta eman behar da. Ez etorkizunik gabeko iragana, ez iraganik gabeko etorkizuna.



Familia goitzenak Plazentzian

Garai batean familia goitzenak oso arruntak izan ziren Soraluzen eta familia asko etxearen izenarengatik edo kide baten ezizenarengatik ezagutzen zituzten herrian. Pil-pileanek kaleko familia goitzen batzuen testigantzak jaso ditu ondorengo erreportajearen.

Testua eta argazkiak: **Ubane Madera eta Egoitz Unamuno.**

Duela urte batzuk, "Zu zeinena zara? Zein etxetakua?" galdera arrunta zen herritarren artean. Familiak instituzio gisa indar handia zuten garaian, herritarrek familiaren izenaren arabera identifikatzen zuten elkar; hala, norbere izenaren edo abizenaren ordeztu, baserriaren izena edo kaleko etxearena erabiltzen zuten eta kalekoen kasuan, gainera, ohikoa zen familiako kide baten goitizena edo izena erabiltzea.

Kaleko familien goitzen bihurtu diren Plazentziako izenak jasotzen hasiz gero, ezin konta ahalako zerrenda osa liteke: *Motxa, Molde, Bixarra, Kakua, Txanbua, Txakarra, Txergori, Meltxor, Turkua, Txitia, Tapurrio, Paldai, Tinterokua, Erregia, Kaxkurrio, Torre, Sanson, Txorixa, Herrero, Katolikua, Katapazenekua, Txaparro, Kanpainekuak, Zapateruanekuak, Barkillerua, Arratoia...* Izen hauetako bakoitzaren atzean istorio bat dago, arruntagoa edo bitxiagoa, kasuaren arabera. Zenbait kasutan familiako kideek gogoratzen dute zein den izenaren jatorria eta beste zenbait kasutan, osteratuta, ez.

Azken urteotan, familia goitzenen erabilera apaldu egin da eta gutxi batzuk belaunaldi gazteagoetara igarotzea lortu badute ere, gehienak galduta daude edo belaunaldi zaharrenekin batera galduko dira. Herriko izaeraren adierazle politak direlakoan, Pil-pileanek herriko bost familiatako kideak batu ditu, euren testigantzak jaso eta ondorengo erreportajearen aurkezteko.

"Motxa txistuari lotutako izena izan da"

BASAURI FAMILIA MOTXARRAK



Senideak Motxaneko etxarean atarian.

Jose Frantzisko Basauri, basauritarren birraitita, elgetarra zen eta atzamar bat falta zuen. Arrazoi horregatik, bere garaian goitizena ipini zioten: *Motxa*. 1890ean, haren semea, Anastasio Basauri, Plazentziara etorri zen bizitzera "asto baten gainean bere propietate guztiekin" eta aldean ekarri zuen bere goitizena ere. Harrezkero, Plazentzian basauritarren familian jaio ziren belaunaldiek *Motxa* edo *Motxanekua* goitizena jaso zuten herentzian. Baita familiaren etxeak ere, Errabal kaleko 3. zenbakiak.

Jose Angel Basaurik Pil-pileani kontatu dionez, berari "gazte gaztetatik" deitu izan diote *Motxa*, baita bere arrebari eta beste hainbat senideri ere. "Herrian gehienek ez zuten ezagutuko goitizena nondik nora zetorren, baina guri gazte gaztetatik esan digute *Motxa*. Lehen gehiago, gaur egunean baino: "Orain ere, nire sasoiko jendeak horrelaxe

deitzen digu baina gazteagoek apenas erabiltzen dute".

Txistulari familia

Goitizenarekin sentitu izan duenaz galdetuta, Jose Angelek dio "harrotasuna" sentitu izan duela beti: "Gurea txistularien familia izan da, eta *Motxa* txistuarekin lotutako izena izan da herrian". Lau belaunalditan zehar eutsi diote txistuari: "aita eta anaia txistulariak nituen, nik ere jardun dut, alabak ere bai eta orain lobak ere badihardu."

"AITA ETA ANAIA
TXISTULARIAK NITUEN ETA
ORAIN ANAIAK ERE
BADIHARDU"

"NIRE SASOIKO JENDEAK
HORRELAXE DEITZEN DIGU
BAINA GAZTEAGOEK
APENAS"

Anekdotak ere kontatu du txistuari lotua. "Motxaneko etxean ba ei zegoen txakur txiki bat. Behin, Eibar aldera joan eta galdu egin zen. Eta zer eta Eibarko txistulariek ondotik ezin kenduta erabili zuten. Txakurra ohitua zengoen etxean txistua entzuten, eta nonbait, soinua ezaguna egin eta hango txistulariengana hurreratu omen zen". Han jaso eta ekarri zuten gero etxera.

Eibarren ere bai

Eibarren ere ba omen zen *Motxa* goitizena zuen herritar bat: Pedro Basauri, Plazentziara bizitzera etorri zen Anastasio Basauriren anaia, "Pedrutxo torerua" esaten ziotena. Jose Angelek ezustean jakin zuen bere berri, berarekin topo egin zuen batean: "Behin Eibarren, topo egin nuen Pedrorrekin, bera nor zen jakin gabe. Agurtzerakoan esan nion noizbait Plazentziara baldin bazetorren galdetzeko Motxanekoengatik eta orduan ezan zidan bera ere *Motxa* zela".

"Goitizena polboraren moduan zabaltzen zen"

RAFA, MOISES ETA SANTOS MOLDETARRAK



Rafa Gallastegi, Moises Gallastegi eta Santos Elizburu Frontoian.

XX. mendearen hasieran, Laureano Gallastegi Olalde osintxuarra (Moisesen aitita, Rafa eta Santosen birraitita) Plazentziara etorri zen bizi izatera, Elizburu kaleko etxebizitza batera. Etxe hura Ameriketara joan zen lehengusu batek oparitu omen zien Laureano eta bere andreaki. Hala kontatu du Moises Gallastegik "Bere garaian, lehengusuari Ameriketarako billetea erosten lagundu zioten eta hark, bueltatu zenean, dirua ekarri zuen eta, emandako laguntzaren ordainetan, etxea erosi zien Elizburu kalean". Soraluzera bizitzera etorri zen familia hartako 11 seme-alaben arteko bat izan zen Juan Jose Gallastegi Urzelai, hain zuzen, *Molde* goitizena familia osora zabaldu zuen pertsona.

Pilota jotzeko "moldea"

Bitxia da *Molde* goitizenaren jatorria. Moisesek kontatu duenez, eta handik aurrera, Juan Jose *Molde* goitizena ipini zioten". Juan Jose gerra garaian hil zen gaixotasun batek erasanda, baina bere senideei *Molde* goitizenez deitzen jarraitu zieten; baita euren ondorengo

"JUAN JOSE GERRA GARAIAN HIL ZEN BAINA SENIDEEI 'MOLDE' ESATEN JARRAITU ZIETEN"

"GENERAZIO BAKOITZAK BERE TITULUAK IPINTZEN DITU, LEHEN BATZUK ETA ORAIN BESTE BATZUK"

batzuei ere. "Herri txikietan horixe pasatzen zen, gaitzizena ipini orduko, polboraren moduan zabaltzen zen".

Gaur egun gutxiago

Gaur egun adin batetik gorako jendeak bakarrik erabiltzen du *Molde* goitizena. Moisesi betidanik deitu izan diote *Molde*. Rafaren kasuan jende gutxiagok: "Niri nire aitaren kuadrillakoek bakarrik esaten didate eta tarteka neuk Moisesen semeei", dio barrez. Santosi, berriz, *Molde* deitu izan diote baina "gehiago *Bixarra*", aitaren partetik jaso duen goitizenez. "Belaunaldi bakoitzak bere tituluak ipintzen ditu, lehen batzuk sortu ziren eta orain beste batzuk sortzen dituzte", bota du sententzia Moisesek.

"Txanbolin goitzenaren eboluzioa da Txanbua"

TXANBUATARRAK MARTINA AMANDREAREKIN



Txanbuatarrak Martinarekin.

Elgetatik etorri zen Soralzera Francisco Ormaetxea. Ofizioz abarketaria zen. Haren emaztea ere, Norverta Mamerta, elgetarra zen.

Izen ezohiko edo kurioso hori izanda, bere alabari Sofia Irene izen dotorea jarri zioten 1891n Soraluzen jaio zenean. Beste seme bat ere izan zuten, Ignacio, nagusitan Gabolats 8an Tornilleria Ormaecheako jabe izan zena.

Danbolin

Francisco Ormaetxea, abarketaria izateaz aparte, txistularia eta danbolin-jolea ere bazen. Inguruko herrietako jaietan ibiltzen zen txistua eta danbolina jotzen, eta, hortik *Txanbolin* goitzenarekin deitzen hasi zitzaizkion. Denborarekin horrela egin zen ezaguna.

Bestalde, haren alaba Sofia Irenek Aramaiotik etorritako

Miguel Zubizarreta ezagutu zuen; hark Itsasoi baserrian pasa zuen denboraldi bat morroi bezala. Sofia Irene eta Miguel ezkondu egin ziren eta lau seme-alaba izan zituzten: Miguel, Martina (aurtengo azaroan 102 urte beteko dituena), Isabel eta Rosarito.

Txanbolinetik Txanbua

Miguel Zubizarretari, *Txanbolin* goitzenaren eboluzioarengatik,

"ALPARGATA-EGILEA
IZATEAZ APARTE,
TXISTULARIA ETA
DANBOLIN-JOLEA ZEN
FRANCISCO"

"TXANBUA GOITIZENAK
BIZIRIK SEGITZEN DU
ORAINDIK SORALUZEN"

txanbua deitzen hasi zitzaion, eta ondoren, haren seme Ignaciori ere *Txanbua* esaten zioten. Gaur egun ere, horrela da ezaguna eta Ignacioren arreba Amaiak ere Amaia *Txanbua* darabil bere burua izendatzeko. Horrez gainera, *txanbuatarrendako*, Martina Zubizarreta bera ere bada *Txanbua*, *txanbuatarren* arteko nagusiena alde handiarekin.

Belaunaldi berriak ere bai

Belaunaldi berriagoetara etorrira, berriz, Ignacio Zubizarretaren seme-alabek ere badarabilte goitizinea eta herrian Ainhoa *Txanbu* eta Oier *Txanbu* modura dira ezagunak. Are gehiago, Ainhoaren seme nagusi Sugoiri ere zenbaitek *Txanbua* esaten diote.

Beraz, *Txanbua* goitzenak bizirik jarraitzen du oraindik Soraluzen.

"Izena baino gehiago erabiltzen dugu goitizenena"

ANGEL LUIS ETA ENEKA EZENARRO KAKUATARRAK

Kakuatarrek bi bertsio dituzte familiako goitzenaren jatorria azaltzeko, Angel Luis eta Eneka Ezenarro aita-alabak esplikatu dutenez.

Lehen bertsioaren jatorria aititak Angel Luisi kontatu zion: "Aitita Luis egunero joaten zen Gabolatseko gure etxetik Osintxura arrautza bila, han zuen oilategira. Behin, berarekin nindoala galdetu nion: nondik dator *Kakua*? Zera erantzun zidan: Nire aititari ere esaten zioten. Entzunda daukat, behin, senitarteko batek, menditik jaisten, etxe batera seinalatuta eta esan zuela: begiratu ezazu leihora, han dago nire kakoa (leihoan bere senide bat zegoen). Kakoa da zuhaitz batek dituen bi adar berdin. Ondarroan, berriz, txalupak ekartzeko erabiltzen dute bi punta berdin dituen makila; horri ere kako esaten zaio".

Lehen bertsioan, beraz, familia bereko senideak lotzen ditu *Kakua* goitzenak.

Sudur-kakoa

Bigarren bertsioan, berriz, *Kakua* goitzenak sudurraren itxurarekin du lotura, Enekek entzunda duenez: "Senide batek zuelako sudurra gantxo (kako) modura, sudur-kakoa esaten zaio horri. Guk ez dugu halako sudurrik, baina familiako beste batzuek bai, eta nik entzunda dudanez, hortik etor liteke *Kakua*".

Soraluzeko ezenarrotarrek, baina, sinesgarritasun handiagoa ematen diote lehen bertsioari, sustrai sakonagoak dituelako.

Osintxun

Lehen *Kakuatarra* izan zen Angel Luisen aititaren aita, eurek dakitela. Osintxukoa zen familia,

bertako Urzelai baserrian du sustraia.

Gaur egun, Soraluzen eta Osintxun daude kakuatarrak: "Hiru gara Plazentzian eta beste lau Osintxun. Azpeitian bizi denari, etxera datorrenean, *Kakua* esaten diote, baina herritik kanpo ez", kontatu dute.

laban bat oparitu zioten eta han grabatu zioten KQA. Bestalde, Gabolatseko gure denda ere *Kakua* zen eta, gaur egunean ere, askok esaten dute oraindik: *Kakuanera noa*", dio Angel Luisek.

"Gu, berriz, (Beñat eta Eneka) umetan *Kakutxiki* ginen eta orain *Kakua* edo *Kakuanekuak* gara. Adibidez, nire urtebetetzea pasatu



Angel Luis eta Eneka Ezenarro Zubiko iturrian, atzean aitaita-amamen Gilaneko etxea dutela.

Izena baino gehiago

Plazentziatarrei dagokienez, harro darabilte goitzena: "Denerako erabiltzen dugu. Izena baino gehiago. Ni (Angel Luis) 14 urte nituenetik naiz *Kakua*. Nire aitari, berriz, behin Allegroko lagunek

LEHEN KAKUATARRA
OSINTXUARRA IZAN ZEN,
ANGEL LUISEN AITAITAREN
AITA

"HARRO GAUDE KAKUA
IZANDA; SUSTRAIEKIN
LOTUTA JARRAITZEN
DUGULA SENTITZEN DUGU"

berri, Txurrukara deitu eta esan nuen: Eneka naiz, *Kakuanekua*. Edo bestela esaten dut Eneka *Kakua* naiz. Eta ama, Ana Mari Albisua, ezkondu aurretik zen *Lesari Kojuanekua* baina ezkondu eta gero Ana Mari *Kakuanekua* zela esaten zuen. Ni harro sentitzen naiz goitzena erabiltzen. Sustraiekin lotuta jarraitzen dugula sentitzen dugu. Nire alaba Aneri ere *Kakutxiki* esaten diote. Nire lagunek, herriko jendeak, esaten diote horrela. Gazteek ez, ez oraindik, behintzat. Berak ere oraindik ez du erabiltzen, baina gustatzen zaio, barre egiten du. Ni ere beranduago hasi nintzen erabiltzen, nahiz eta umetatik *Kakutxiki* esan. Familiako Whatsapp taldearen izena ere kakuatarrak da".

'Txorixa' Izagirre abizenari lotua ageri da

IMANOL, VERONICA, JUAN ARSENIO ETA ALEX TXORIXA

Rosalia *Txorixa*, Juanito *Txorixa*, Igone *Txorixa*, Jontxu *Txorixa*, Maria Dolores *Txorixa*, Mari Karmen *Txorixa*... Imanol, Veronica, Alex eta Juan Arsenioren zendutako senideen izenak dira, goitizenez deitu izan dietenak. Izan ere, *Txorixa* goitzenak historia luzea eta hedapen handia izan du herrian. "Garai batean abizenetik baino goitzenetik ezagutzen zen jendea. Nik gogoratzen dut lehen beti esaten nuela Maria Dolores *Txorixan* alaba nintzela eta amamak beti galdetzen zidala nire lagunak zeinenak ziren, eta nik zerrenda esaten niola: Nerea *Motxanekua*, Esther Maria *Sansonena*, Ezosi *Egileor*, Ainhoa *Katapazenekua*... Nire umeak jaio zirenean ere, akordatzan naiz zela esaten zidaten 'ikusi zelakuak diran txori txikixak!', kontatu du Veronicak. Juan Arsenioren aita Juan Martini ere *Txorixa* esaten zioten eta Alexen ama Igoneri ere bai. Imanolen birramamari ere bai, baina ez horrenbeste, eta bere ustez hori da "goitizenek gizonezkoengan indar gehiago izan dutelako emakumezkoengan baino".

Izagirre abizena da amaraun horretako pertsona guztiak lotzen dituen haria. Imanolek laugarren abizena du, Veronicak eta Alexek bigarrena eta Juan Arseniok lehenengoa.

Hainbat teoria

Ostera, ez dago argi zein den *Txorixa* goitzenaren jatorria. Senideek teoria bat baino gehiago dute. Esaterako, Alexek etxean entzun du "bazegoela familian txoriak hazten zituen norbait eta hortik ipini ziotela gero izena".

Posibilitate bat da. Ostera, Juan Arseniok beste istorio bat jaso du: "Aitita Juanitok galeper bat zeukala balkoian eta jendea lanera zihoanean kantuan egiten zuela" baina Imanolek dioenez sorrera ezin liteke hori izan, jakin duenez, hamarraldi batzuk lehenago jaio zen bere birramona Rosaliari (Soraluze, 1864)

bizilagunei *Txorixanekua* deitzen diete", dena den, Imanolek zuhaitz genealogikoa aztertua du XVIII. mendera arte eta ez dute bilatu Lekeitiotik etorri zen inor. Oraingoz, argi dagoen gauza bakarra da *Txorixa* goitzena Izagirre abizenari lotua ageri dela Plazentzian, duela ehun urte baino lehenagotik.



Imanol, Veronica, Juan Arsenio eta Alex.

dagoeneko Rosalia *Txorixa* esaten ziotelako.

Hirugarren aukera bat ere badago, Veronicak eta Imanolek jakin duten informazio bati lotua: "Lekeitioan ba ei dago baserri bat *Txorixa* izenekoa, eta bertako

"GOITIZENAK ADIERAZTEN DU GUREA HERRIAN ERROTUTA BIZI IZAN DEN FAMILIA DELA"

"AKORDATZEN NAIZ UMEAK JAIO ZIRENEAN ZELA ESATEN ZIDATEN: 'IKUSI TXORITXUAK!'"

Herrian errotutako familia

Familiako goitzena izateak zer sentiarazten dien galdetuta, guztiak bat datoz Imanolek azaldu duenarekin: "Nere ustez, goitzenak adierazten du gurea herrian errotuta bizi izan den familia dela eta horrek familiakoentzat badu bere zera, noski". Veronicak gogoan du bere izebari ez ziola graziaz egiten goitizenez deitzeak eta kexatzen zenean bere ahizpak (Veronicaren amak) nola esaten zion: "Jesus neska horregaitik hasarretu? Badagonaz txarrauk guria baino, *Arratoia* ta...". Gaur egun, oso gutxi entzuten dute, "tarteka lagunak batek brometan".



Leire Elizburu.

"Niretzat zailena plazentziatarrak epaitzea da"

LEIRE ELIZBURU MENDICUTE PILOTAN EPAILE

Leire Elizburu Mendicute (Soraluze, 1988), 2020ko urtarrietik Gipuzkoako Pilota Federazioan pilota-epaile da.

Gipuzkoako Pilota Federazioan 15etik gora epaile gizonezko daude eta hiruzpalau emakumezko epaile bakarrik.

Leire Elizburu Mendicute soraluzetarra da horietako bat.

Zelan animatu zinen?

Lankide baten umea ikustera joan nintzen Mendarora. Epaileak kale egin zuen eta lankidearen umeak eskatu zidan faborez ea epaile egingo nuen. Lau ume pozik lagatzearen hori egin nuen. Gero harra sartu zitzaidan eta

azterketara aurkeztu nintzen, Euskadiko Pilota Federazioaren Abadiñoako egoitzan.

Non ibiltzen zara epaile?

Lazkao, Oñati, Aretxabaleta, Arrasate eta Soraluze. Soraluzen egin nuen estreinaldia.

Zer moduz?

Hasieran oso-oso urduri. Estreinaldira etxekoak etorri ziren eta momentu oso-oso espeziala izan zen: etxean, herrian eta etxekoez inguratuta, mundiala izan zen.

Eta orain?

Batzuetan dudak sartzen zaizkizu, baina gutxika ikasten, konfiantza hartzen eta aurrera egiten.

Justu aurrekoan pilotari bat haserretu egin zen...

Bai, amaieran barkamena eskatu zidan esanez frontoian *prontoa* zeukala eta nire lana ondo egin nuela, nahiz eta hasieran nire lana zalantzan jarri.

Orain hasita daude jarrera batzuk zaintzen, ala?

Bai, orain hasi dira orain arte kontrolatzen ez ziren zenbait jarrera kontrolatzen. Pilotaria bortitza ez izateko irudia bultzatzen, lehenago ikusten ziren zenbait jarrera (aulkia xehatu...) zigortzen hasi dira. Niri, oraingoz, ez zait tokatu.

Zer egiten zaizu zailena?

Plazentziatarrak epaitzea. Uste dute etxekoen alde egingo duzula, baina kanpotik datozen pilotariak ere ezagunak dira eta neutroa izan behar zara. Ez litzaidake batere gustatuko herrikoak dauden final handi batean epaile izatea. Dena den, gogorrena egin zitzaidan nire aita nire partida bat ikustera etorri zen lehen aldia. Etorri zenean oso urduri jarri nintzen.

Eta zein partidatan gustatuko litzazuke egotea?

Fama edo indar handia hartzen ari dira neskak eta gustatuko litzaidake emakumeen partida baten epaile izatea. Partidan denak emakumeak izatea.

"GEHIEN GUSTATUKO LITZAIDAKEENA DA EMAKUMEEN PILOTA PARTIDA BATEN EPAILE IZATEA"

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntuko teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sisteme berritzaile arabiarren dugu.

Elizburu, 3 behea
SORIALUZE
Tel: 943 75 25 67
Mug: 747 42 78 17
e-mail: elizpe@el@gmail.com

Ordelegia:
Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



MENDIZABAL okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel: 943 75 13 99



Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgonak, ogibarekoak, ogibarekoak, radiak, pizzaak, gosaria...

Entzupatu ogien dora
Tel. 943 75 17 88



bertako - REKIN BAI!
Igoailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450

www.bertoko.eus



Kontulan

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com



IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 613




Hortz klinika

Erreal 1
Tel: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.590

30 urte baino gehiagoko esperientzia
odontologia, proteziak, ortodontzia, odontopediatria, ingulterak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (300) ekarnera, orfo eta tele.

Katia Gustin
Odontologoa
K.Z. 48.001.541



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 13:00 eta 16:30 - 20:30

Larunbatak: 08:30 - 13:30
Igandeak: 08:30 - 14:30

Gosariak, ogia, perrea, pisierik, boibolak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



Soraluzeko
Kooperatiba Elkarteak
190etik rabilik

Arriandegia, janaria, errapak, etxera tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00



Carpinteria MANU Aroztegia

Ateak
Bentoneak
Pegatoneak
Sukaldeak
Tafelak

Manuel C. Fuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



HNOS. BENITO ANAIZ
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak, neurrira egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel: 943 75 20 47



Belarrak
lana eta belarrenda

Elkagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22
943 75 30 11



Bidelagun euskaltzaletasunean

SOMABE Supporting your projects

aras

ALBISUA S.L.

laibi ELECTRICIDAD





Bertsolariak eta trikitilariak Arrieta baserrian. EGOITZ UNAMUNO

Berriak koplak eta ahotsak

Otsailaren hasieran, hainbat talde atera ziren Santa Agedako koplak kantatzera kalera nahiz baserrietara. Aurten, gainera, ahots berriak ere entzun dira kantari, koplak berriak kantatuz.

Musika eta bertso eskolako ikasleek egin zuten lehen saioa kalean, abesbatzak eta txistulariek gero eta azkenik baserrietako taldeak. Azken honetan, lau bertsolarik jardun

zuten bat-batean eta umorezko koplak asko kantatu zituzten inguruko en gazamenerako:

(Boskoitxin)
Ettxekoandre ettxekoandre

*begira nago berari,
lantzean baten jantzi behar zaio
amantala senarrari.*

(Legardan)
*Kristal haundi bat ipini dute
Plaentxi aldera begira,
ta egunero postal eder bat
ikusiz esnatzen dira.*

(Munetan)
*Elgoibarretik Soralezera edo
gehien gehienean,
herria edertzen hasi omen zen
zu etorri zinenean.*

(Argateburu)
*Santa Ageda bezpera dugu
Soralezeko Eguna
etxe guztiak aztoratzeko
aukeratua duguna.*

Bertso eskolakoak kalez kale
Bertso eskolako gaztetxoek ere koplak berriak kantatu zituzten kalean. Tartean tabernariei eskatzeko propio pentsatutako hauek:

*Edurtza eta Ufala daude
tabernak gure parean,
mesedez jarri azeitunak ta
rabak gure platerean.*

*Txoko tabernak beti izan du
sukalde onaren fama,
meriendatzeko nahiko genuke
sanwich goxo-goxo bana.*



Kantu taldea Legarda baserrian. E.U.



Bertso eskolako ikasleak kantari. E.U.

AGENDA

**AMaraun (Ikuskizuna)**

AMaraun ikuskizuna Oihana Iguaran bertsolariak eta Amaier Luluaga dantzariak amatasunaren inguruan egindako hausnarketa bat da. "(Ama) izan ala ez izan" erabakitik abiatuta, "bidaia hipotetiko bat amatasunean zehar", musika, kantua eta dantza baliatuta.

Martxoak 10, barixakua, antzokian, 20:00etan.

**Legazpiko Banda Txikia (Kontzertua)**

10-13 urte bitarteko 40 bat ikaslek osatzen dute banda, Leire Narvaizak zuzentzen duena. Disneyko pelikuletako eta Soraluzeako apropos prestatutako piezak joko dituzte eta Soraluzeako Musika Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute.

Martxoak 17, barikua, antzokian, 18:30ean.

**Elbira (Dokumentala)**

Dokumentalak Elbira Zipitria Ikastolen sortzailearen bizitzako hainbat pasarte jasotzen ditu, fikzionatuta: Iparraldeko egonaldia, Urgull mendira egiten zituen irteerak edota On Jose Miguel Barandiaranekin izan zuen harreman estua dira horietako batzuk. Zuzendaria: Ibai Gonzalez.

Martxoak 22, eguaztena, antzokian, 20:00etan.

**Lehendakari gaia (Antzerkia)**

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga aktore dituen antzezlan da. Lehendakari hautatu berria inbestidura-ekitaldirako hitzaldia prestatzen ari da; azken orduan, ordea, arazo larri bat sortuko zaio eta arazoa bideratzeko psikiatra bat agertuko da.

Martxoak 24, barikua, antzokian, 20:00etan. (Sarrerak Iratxon)

Data: Martxoak 14 Ordua: 18:30-20:00

Lekua: Soraluze. Tolarekua aretoa

Trebatzailea: Nerea Mendizabal

Norbanizako: Haurren eta nerabeen gurasoentzako

Hizkuntza: Euskara

Doako hitzaldia.

Seme-alaben autoestimua elikatzen

Izen-ematea: **943 753 043** edo
Webgunea: **soraluze.eus/eu/tramiteak/izen-emateak**

TREBA
Gurasoak

GAZTEMATIKA
Eusko Jaurlaritzaren
Kulturako Departamentua

ETORKIZUNA
GRAN

ELBIRA
MENDIA

Quico Pugès biolontxelista

SORALUZeko MUSIKA ESKOLAN ETA ESMUC-EN IRAKASLE DIHARDU

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: QUICO PUGÈS ETA UBANE MADERA

Quico Pugès Suarez (Vic, 1981) Sorluzeko Musika Eskolako biolontxelo irakaslea da duela hiru urtetik. Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan (ESMUC) egin ditu biolontxelista ikasketak eta han ere bada musika irakasle. Instrumentu melodikoekin (sokak, haizezkoak...) Inprobisazioa du ikasgai. Astean behin joaten da Bartzelonara eskola ematera Eibartik, han bizi baita Euskal Herrira etorri zenetik, orain dela zazpi urte.

"Super gustura"

Sorluzeko Musika Eskolari dagokionez, Pugèsek sei ikasle ditu, 7 urteko ume bat eta 30 urtetik gorako 5 heldu. "Super gustura" dago bertan, "eskola txikia da, Sorluzere herri txikia da eta tratu gertuagokoa sentitzen dut, oso gustura nago, bai eskolak ematen eta baita eskolan lanean ere", dio kataluniarrak. Helduak ditu ikasle gehien. Zentzu horretan, Pugèsek dio asko aldatu dela musika eskolen izaera. "Lehen umeentzat ziren gehiago, baina musika eskola zerbitzu

publikoa da eta ez dago musika ikasteko adinik".

Tangram Cello proiektua

Bestalde, musikari bezala, *Tangram* diska grabatu zuen Tangram Cello proiektu pertsonalaren baitan, 2016an.

Tangram proiektu pedagogikoa da eta bi adar ditu: "Bata da ikusleentzat, kontzertuak, diskoa... Beste adarra, berriz, hezkuntza, irakasleentzat formazioa, tailer bat ikusleentzat... Helburua biolontxelo edozein motako musika-instrumentu modura



Quico Pugès Suarez Sorluzeko Musika Eskolako bere gelan.

tratatzea da, ez instrumentu klasiko modura. Diskoak 11 abesti ditu eta bakoitzak kapitulu bat dauka; kapitulu bakoitzean gai bat lantzen da txelistendako: melodia ikasteko, zati batzuk inprobisatzeko, erritmo batzuk asmatzeko, moldaketak egiteko..." Bestela esanda, Pugèsek sortutako 11 kantuekin ikasteko eta jolasteko aukera eskaintzen du.

Quartet Brossa laukotea

Horrez gain, Euskal Herrira etorri aurreko ibilbide musikalean, zortzi urtez, Quartet Brossa laukoteko kidea izan zen. "Kuartetoaren formazioa klasikoa izan arren (bi biolin, biola eta txeloa), helburua zen beste musika mota batzuk egitea, agian klasikotik *zabor* modura ikusten dena -hortik laukotearen izena, *brossa* zaborra da katalanez-: konpositore ezezagunak, beste musika mota bat, folk, hip-hop... Proiektu asko egin

genituen eta laukoteak jarraitzen du. Quartet Brossa laukotearen helburuen artean beti dago apurketa moduko bat, eztabaida sortzeko beste ikuspuntu bat", esplikatu du Pugès-ek.


Adibidez, hainbat disko grabatu ditu Quartet Brossarekin, *Cançons dels Brigadistes*, esaterako: "Ikerketa egin genuen jakiteko zer kantu kantatzen zituzten errepublikanoek. Haiek hartu, kuartetoarentzat, abeslari batentzat, akordeoi batentzat eta perkusio batentzat egokitu, eta disko bat atera genuen". Beste disko bat izan zen *Retaule d'avars*. "Bartzelonan Palau de la Musikaren inguruan egon zen ustelkeriaren harira, gure mendeku modukoa izan zen. Abarizari buruzko hainbat testu literaturatik eta egunkarietatik hartu, eta Falsa Alarma hip-hopariek, kuartetoarekin, klabeekin eta kontratenore batekin abarizariaren inguruko kantu

batzuk asmatu genituen". Bi adibide besterik ez dira horiek.

Pugèsen deskribapenarekin bukatzeko, esan berarentzat instrumentuak "jostailuak" direla. Auto-ikaskuntzaren bitartez, gitarra ikasi du, kontrabaxua ere badaki, tronboia pixka bat, cobla batean jo du (sardanekin lotutako musika-taldea) bateria ere badu etxean... Eta horrez guztiaz gainera, euskaraz dihardu, oso ondo jardun ere, "baina hobetzen saiatzen naiz, bai arlo pertsonalarengatik zein eskaintza publikoetara aurkeztu ahal izateko. Euskaraz bizi naiz, baina legalki ez daukat horrenbeste titulu, momentuz. Niretzat oso garrantzitsua da, gure lana da gure hizkuntza mantentzea nahi badugu. Azken batean, gainera, katalana eta euskara kaxoi berean daude. Cabrera Morenok dioen moduan, ez dago hizkuntza txiki edo nagusirik, gutxituak edo nagusituak baizik.



Pugès kontzertua eskaintzen.



Pugès bakarka.



Pugès eskola ematen.

ZORION AGURRAK




Oihan Gallastegi Nogales
Urtarrilaren 21ean, 4 urte. Zorionak txapeldun!! Etxekuen partez, bereziki amama Mertxen partez.



Ainara Gonzalez Armengol
Otsailaren 27an, 8 urte. Zorionak. Segi oin arte moduan sorgintxo. Ondo ospatu zure eguna. etxekoan partez.



Angel Gonzalez
Otsailaren 25ean 68 urte. Zorionak aitxitxa! Ondo pasau zure egunian! Primeran ospatuko. Pilla maitxe zaitxugu! Muxuak.



Lander Cifuentes
Otsailaren 3an 9 urte. Zorionak! Asko maite zaitugu! Muxu haundi bat! Eta ondo pasa eguna!



Markel Larrañaga Gallastegi
Otsailaren 18an 8 urte. Zorionak txapeldun! Patxo haundi bat danon partez.



Idoia Basauri Varela
Otsailaren 19an, 3 urte. Zorionak bihurri!! Asko maite zaitugu!

OHARRAK

Lan-deialdia

Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak saltoki arduraduna behar du, gaur egun zeregin hori betetzen duen langileak erretiroa hartuko duelako. Lanpostura aurkezteko ezinbestekoa da euskara jakitea eta gradu ertaineko ikasketak izatea. Bestalde, baloratuko dute eskarmentua izatea, eta antolaketarako, hornitzaileekin negoziatzeko eta kudeaketa komertzial/finantzarioa egiteko gaitasuna izatea. Kooperatibatik gaineratutakoaren arabera, gradu ertaineko ikasketak aurten bukatuko dituzten zein praktikak egin behar dituzten ikasleen curriculumak ere onartuko dituzte.

Interesa dutenek Kooperatibara bertara eraman beharko dituzte curriculumak, martxoaren 15a aurretik.

ESKELAK

XXIII. URTEURRENA


Benan Rodriguez



2000ko otsailaren 28an hil zen.

Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
betirako nere bihotzean

Maribi

 <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jakin nahiko nuke eskailera-zuloko hormak estali edo berritzeko zer tramite egin behar diren eta ea badagoen berrikuntza-obrak hasterik azkeneko batzarrera agertu ziren etxejabeen onespenearekin.</p> <p>Zuk diozuen obra horiek berrikuntza-lanak dira, ez eraikinaren kontserbaziorako lanak. Berrikuntza-lanak izaten dira elementu komunetan aldaketak egiteko, baina ez dira ezinbestekoak. Aldiz, besteak, kontserbaziorakoak eraikinaren osotasuna zaintzen dutenak dira, eta horregatik derrigor egin beharrekoak.</p> <p>Ondorioa: zure kontsultaren erantzuna eskailera-zuloko hormen erreforma-motaren eta aipatu ditudan inguruabar horien araberakoa izango da. Obra horren kostua hiru hileko gastu orokorren zenbatekoa baino handiagoa bada, obrari baietza eman diotenean ordaindu beharko dute eta kontra agertu direnak salbuetsita egongo dira.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK


Hildakoak

Jose Urtiaga Quintela
 Angel Palacin Muñoz
 Ignacio Luis Ernabide
 Manuela Balenciaga Etxaide
 Eustakio Altuna Larreategi

Jaiotakoak

Ayman Lahlassa Alvarez

JAIOBERRIAK



Ghali Amalal Ouissal
 Otsailaren 8an jaio zen

ARRANO
 taberna
 Etxari eta gacatu
 etxeko pintxoak
 Etxaburueta 6

Soraluze Motor
 Mug. 676 556 817 (Asier) Mendiola ind. 15
 Tel. 943 75 21 36 Soraluze

MGS
 Seguros
 Veronica Galarraga
 Gertukoa eta segurua

Astelehenetik ostialara: Santa Ana 13
 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 20:30 ☎ 645 744 055

Gipuzkoa
*berdea, orain
 eta beti.*

Etorkizuna Orain.
 etorkizunacraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia   **ETORKIZUNA ORAIN**

IONE LABRICO

Udaberriko dantza ikastaroak

- **Fandango eta arin-arina** (oinarrizkoa) Martxoan
- **Banangoa** Martxotik apirilera
- **Arratiako jota eta porrua** Maiatzetik ekainera
- **Larrain dantza** Martxotik ekainera

Informazio gehiago eta izen-ematea:

Blogean: plaentxia.eus/komunitatea/urrats

Izen-emate fitxa (online):
labur.eus/Dantzalkastaroak

Mug. 652 741 496

Antolatzailea:



Laguntzailea:



errigora

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

errigora.eus



eskatu

Martxoaren 9tik 29ra egin daitezke eskaerak, Errigoraren webgunearen bidez (errigora.eus) zein telefonoz (ondoan dauden zenbakietara deituta).

jaso

Apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran jasoko dituzu produktuak zure herrian, eskaera egitean aukeratutako gunean, zehaztutako egutegi eta ordutegian.

ordaindu

Online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango duzu. Bestela, dena batera ordain dezakezu, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.



errigora.eus

(+33) 532 09 35 45

(+34) 848 87 12 23

🕒 9:00 - 13:30 📅 5/7

Zer da Errigora?

Euskal Herria oinarri eta azulana lanabes dituen ekimen herritarra da. Nafarroa hegoalde eta erdialdea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.